



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO UZTAILAREN 23AN
ARRATSALDEKO 19:07ETAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2019/06/25.

Batzarkideek, 2019ko ekainaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.10 EXEKUZIO UNITATEAN KOKATUTAKO BI ETXEBIZITZAKO ETXEARI (KALEZAR 43 A) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2010-0122

EDURNE VICENTE PULIDO andereak, Kalezarren, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.10 exekuzio unitatean eraikitako bi etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2011eko otsailaren 17an, EDURNE VICENTE PULIDO andereari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.10 exekuzio unitatean bi etxebizitzako etxea (Kalezar 43 A) eraikitzeko udal baimena ematea ematea erabaki zien.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	317.496,04 €
Obra Amaiera partzialaren PEM:	349.069,14 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.

LEHEN ERABILERA

EDURNE VICENTE PULIDO andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko



Usurbilgo Udala

HEU 107.10 exekuzio unitatean eraikitako bi etxebizitzaren lehen erabilera eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituzen Azkune andreak, 2019ko uztailaren 7an honako txostena eman du:

UA2019_04_45

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

OBRA HAUNDIAK

A-107 IARTZA EREMUKO HEU 107.10 EXEKUZIO UNITATEAN BI BIZITZAKO ETXEA OBRA AMAIERARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: Edurne Izaguirre Pulido eta Mikel Izaguirre Pulido.

KOKAPENA: Iartza Eremua, HEU 107.10, Usurbil.

ESKAERA DATA: 2016ko maiatzaren 24.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2010-0122

OINARRIZKO PROIEKTUAREN PEM: 317.496,04EURO.

Obra amaierako PEM: 349.069,14EURO.

AURREKARIAK

- Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia baimena emanez: 2011-02-23
- Exekuzio Proiektu BISATUA aurkeztuz: 2011-10-19/3745
- Alkatearen 2012/0468 dekretua, birpartzelazio agiria eta % 15a ordaindu beharra jakinaraziz: 2012-05-18
- Alkatearen 2012/0714 dekretua, lur mugimendua burutzeko baimena emanez: 2012-08-03
- Interesatuaren idatiza, birplanteo akta (2013-01-31) izenpetua aurkeztuz: 2013-02-15/598
- Udal aparejadoreak ALTUERA zuinketa planoak izenpetu ditu, 2013-08-29 datarekin: 2013-09-02
- Interesatuaren idatzia, unitatea urbanizatzeko egin beharren barruan, espaloia egin ordez dirua emateko aukera aitortzea: 2014-02-25/569
- Udal arkitektoaren txostena konpentsazio ekonomiko gisa ordaindu beharrekoaz, lehen erabilera baimenarekin kitzatzeko: 2014-05-07
- 2016ko urtarrilaren 26an interesatuak obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du.
- 2016ko martxoaren 18an behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du.
- 2016ko martxoaren 31ean interesatuak obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du.
- 2016ko maiatzaren 24ean interesatuak Hondakinen Kudeaketari dagokion azken txostena aurkeztu du.
- 2016ko ekainean udal arkitektoan teknikariak bertaratzea egin du eta irailaren 7an AURKAKO txostena eman zuen, honakoak ondorioztatuz:
 - o "Baimena emateko honakoak bete beharko dira.



Usurbilgo Udala

- Birpartzelazioaren behin betiko onespenerari dagokion 18.000 euroko diru sarrera jada egin dela baieztatu beharko da.
 - %15aren lagapenerari dagokion gainontzeko ordainketa egin beharko da: Udalak 2013ko otsailaren 22an jakinarazi zuen kopuru osoa 34.584,52euro izanik. (Exekuzio Proiektuaren PEM eta Obra Amaierako PEM bat datoz).
 - Birpartzelazioaren ondorioz Udalari egindako espaloien lagapena jabego erregistroan inskribatu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.
 - Udalari laga beharreko espaloia urbanizatu ordez, interesatuak eskatu bezala honen kostuari dagokion 4.794euroko konpentsazio ekonomikoaren ordainketa.
 - Ezinbestean Hondakinen Kudeaketarako amaierako txostenean Obra Zuzendaritzak (obra zuzendu duen arkitektoak) izenpetua aurkeztu beharko da. “
- Udal kontuhartzaitzak ziurtatu du dagozkion ordainketak burutu dituztela: 2016-10-25
 - Interesatuaren idatzia, Hondakinen Kudeaketarako ziurtagiria aurkeztuz: 2017-01-17/166
 - Interesatuaren idatzia, planu digitalizatua aurkeztuz (CD): 2017-01-17/165
 - Interesatuak espaloien lagapena aurkeztu du lehen erabilera eskatuz: 2018-10-30/3313
 - Udal aholkulari juridikoak ontzat eman du lagapenaren dokumentua 2019ko ekainean.

Erlazionatuak:

HZ.01/2012-556: HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A 107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.10 –ren BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA:

TXOSTENA

Behean izenpetzen duen teknikariak, 2016ko irailaren 7an kontrako txostena eman zuen, aldekoa emateko bete beharrekoak ondorioztatuz. Geroztik aurkeztutako dokumentazioa baldintza haiekin alderatuz esan daiteke:

- Espedientean datzanez, 2016ko urriaren 25ean udal kontuhartzaitzak ziurtatu du dagozkion ordainketak burutu direla.
- Birpartzelazioaren ondorioz Udalari egindako espaloien lagapena jabego erregistroan inskribatu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu zuen interesatuak 2018ko urriaren 30ean eta udal aholkulari juridikoak onespenera eman dio.
- Hondakinen Kudeaketarako amaierako txostena aurkeztu zen 2017ko urtarrilaren 17an.

Beraz, esan daiteke, eskatutako baldintzak bete direla. Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2019ko uztailaren 7an.
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA/UDAL
ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu



Usurbilgo Udala

Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez

ERABAKIA

LEHENDABIZI: EDURNE VICENTE PULIDO andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.10 exekuzio unitatean bi etxebizitzako etxeari (Kalezar 43 A) lehen erabilera baimena ematea .

BIGARRENA: EDURNE VICENTE PULIDO andereak, egindako 72,80 m²-ko lursailaren lagapena Errenta eta Ondare Teknikaria jakinaraztea Udal Ondasunen Inbentarioan jaso dezan.



REGISTRO DE LA PROPIEDAD DE SAN SEBASTIAN N°. 4

Plaza Julio Caro Baroja 1, 2°. 20018 San Sebastián (Guipúzcoa)
Teléfono: 943316704 - Fax: 94316314

Nota expedida al amparo del artículo 19 bis de la L.H.

-- DATOS DE LA FINCA DE USURBIL N°: 5907 --

Municipio: USURBIL

Finca: 5907
CRU: 2001000397431

----- DESCRIPCION DE LA FINCA -----

URBANA. PARCELA DE TERRENO, de setenta y dos metros y ochenta y dos decímetros cuadrados de extensión, procedente del Caserío Yarza sita en jurisdicción de Usúrbil. Son sus linderos: Norte, UEU 107-11; Sur, coto de terreno heredad, herbal y manzanal, que rodea el Caserío Yarza; Este, finca matriz; y Oeste carretera. Tal y como consta en la inscripción 1ª, dicha parcela de terreno queda afecta como bien de dominio público, destinada a acera.

-- TITULARES DE LA FINCA --

NOMBRE TITULAR	N.I.F.	TOMO	LIBRO	FOLIO	ALTA
AYUNTAMIENTO DE USURBIL	P2007800B	1843	236	147	1

100,00% del pleno dominio
Título: CESION GRATUITA
En virtud de la escritura otorgada el día veinticinco de Julio del año dos mil dieciocho ante el Notario de Lasarte-Oria Don Miguel Ángel Martínez Urroz, número 1705 de su protocolo.



Usurbilgo Udala

HIRUGARRENA: Erabaki hau interesatuei eta Kontuhartzaileari ematea kitapen berria egin dezan.

3.- CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A. ENPRESARI, A-59 (UGARTONDO) EREMUKO G PARTZELAN 31 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKU ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2019-0136

CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko G partzelan 31 etxebizitza, garaje eta trasteleku eraikitzeke udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	3.135.976,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 14.500 €
	Fidantza (%120): 17.400 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2018ko uztailaren 18an honako txostena eman du:

UA2019_HZ04_01

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK

A-59 UGARTONDO EREMUAN G PARTZELAN 31 ETXEBIZITZA LIBREEN OINARRIZKO PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: A-59 Ugartondo. Usurbil.
ESKATZAILEA: CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.A.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2019-0136
ESKAERA DATA: 2019ko ekainaren 14.
OINARRIZKO PROIEKTUAREN **PEM: 3.135.976,0 €**
HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA: 14.500 €
FIDANTZA (%120): 17.400 €



Usurbilgo Udala

1. AURREKARIAK:

- 2019ko otsailaren 27an interesatuak Oinarrizko Proiektua aurkeztu du.
- 2019ko maiatzaren 23an udal arkitektoaren txostena, honako baldintzekin:

- HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:

	AASSTB/PB/Baldaketa/X.A.	Oinarrizko Proiektua	
Etxebizitza kopurua	33	31	BETETZEN DU
Eraikigarritasuna	Sestra g. ---> 3.555 m2(t) Sestra a. ---> 12.800 m2(t) guztirako	Sestra g. <-3.555 m2(t) Sestra a.- zati bat sartu da.	BETETZEN DU
Profila	SIII+IV+BC Estalki beheko zehaztapenekin	SII+IV+BC	BETETZEN DU
sestrak	Behe solairuan: +39,6 +39,9 eta +40,2	Behe solairuan: + 39,98 + 40,28 eta +40,58	Ez du betetzen
altuera	Guztizkoa behe solairutik gailurrera: 15,5	Ikus ebakidura planoak	BETETZEN DU
lerrokadurak	Derrigorrezkoak eta gehienekoak	Ikus planoak	BETETZEN DU
erabilerak	Sestra g. ---> etxebizitzak Sestra a. ---> garaje eta trastelekuak	Sestra g. ---> etxebizitzak Sestra a. ---> garaje eta trastelekuak	BETETZEN DU

Beraz, **eraikinaren barne sestrak Plan Bereziaren Aldaketan onartutakoetara egokitu beharko dira ezinbestean**. Edonola, Exekuzio Proiektuak indarrean den planeamenduak finkatutako eraikigarritasuna, lerrokadurak, altuerak, sestrak eta bolumena bete beharko ditu.

- **ERAIKIGARRITASUNA:** Eraikigarritasun konputoa GAO-n 2014ko urriaren 13an argitaratutako irizpideen arabera eginda, Exekuzio Proiektuan ere ezinbestean bete beharko da indarrean den planeamenduak eraikin honetarako ezartzen duen gehieneko eraikigarritasuna: sestra gainean (3.555 m2(t)) eta guztizko eraikigarritasuna sestra azpian (12.800 m2(t)).

- **SESTRA AZPIKO ERAIKUNTZA:** Sestra azpian dagoen eraikuntza zatiari dagokionean, ikusi da altxaera eta ebakidura planoak alderatuta altxaeretan ez direla marraztu ebakiduretan sotoetara jarri diren saretak (saretaleihoa). Zentzu horretan kontraesana ikusi da, izan ere ebakiduretan erdisotoko leihoetaraino iristen da lorategiko lurra, aldiz, ez da horrela jasotzen altxaera planuan, inpaktua handituz. **Ebakiduretako leihoak eta lurra jaso beharko dira altxaera planoetan.**

Horrekin batera, Exekuzio proiektuari begira, **Sestra azpiko eraikuntzaren planu osoak eta akotatuak aurkeztu beharko dira eta etxebizitza libreei dagokion azalera espreski zehaztu horietan, dagokion baimena horretara egokitzen delarik.**

- **KANPO SESTRAK:** Exekuzio Proiektuari begira, eraikuntzaren kanpo sestrekin bat etorri beharko dute Urbanizazio proiektuan onartutakoekin.

- **ETXEBIZITZEN AZALERA ERABILGARRI GUTXIENEOA:** Aurkeztu den proiektuan 3. portaleko behe solairuan logela bakarreko etxebizitza bat ezarri da, 19.5 m2 erabilgarriko EJS (Egongela-Jangela-Sukaldea) eta guztizko 42.71 m2 erabilgarri dituena. Horren inguruan honakoa:

- x indarrean diren AASS-en 37. artikuluan finkatzen da: "Etxebizitza berri bakoitzaren gutxienezko azalera erabilgarria ez da 60 m2 baino gutxiagokoa izango". **Ez da betetzen.**
- x Babes Ofizialeko etxebizitzan diseinurako ordenantzak (GAO 2009-03-03), aplikagarria dena indarrean diren AASS-en 37. artikuluen arabera, 5.2.a.1. atalean EJS-rako gutxienezko 20 m2 erabilgarria finkatzen ditu. **Ez da betetzen.**
- x Bizigarritasun baldintzen inguruko justifikazioa aurkeztu beharko da (argiztapena, aireztapena, ...).

- **ESEKILEKUA:** Indarrean diren AASS-en arabera etxebizitza guztiek 2,0 m2-ko esekilekua izan beharko dute. **Ez da betetzen.**

- **ERAIKUNTZA MATERIALAK:** Aurkeztu den proiektuan esaten da: "La cubierta se construirá con chapa metálica, adecuada desde el punto de vista constructivo debido a la tipología de cubierta (buhardas)."

Hala indarrean diren AASS-en 37. artikuluan honakoa esaten da: "6. erabili beharreko materialak, lehenetsunez, hauek izango dira: 6.1. Teila arabiarrezko edo antzeko estalkia, edo eta tradiziozkoa, baimena jaso ondoren."

Estalkiaren akabera materialaren inguruan, esan beharra dago, indarrean den A.59 UGARTONDO eremuko Barne Erreformako Plan Bereziak, bere 2.1.7. artikuluan honakoa ezartzen duela: "Se conferirá a los edificios los niveles de calidad constructiva especificados en las bases del concurso que dio inicio a la formulación del presente expediente."

Por otro lado, su diseño se ajustará a los criterios formales de la solución arquitectónica que formaba parte de la proposición adjudicataria en el citado concurso, con referencia expresa al criterio de unitariedad de las fachadas que dan frente al espacio libre conformado."

Hau horrela izanik, dagokion enpresak Udalarekin batean izenpetutako **PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS REGULADORAS DEL CONCURSO DESTINADO A SELECCIONAR EL ADJUDICATARIO DEL**



Usurbilgo Udala

CONVENIO URBANÍSTICO A SUSCRIBIR CON EL AYUNTAMIENTO DE USURBIL PARA DESARROLLAR LA UNIDAD DE EJECUCIÓN Nº6 DE ATALLU Y EL ÁREA 59 -UGARTONDO- DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE USURBIL Y ADQUIRIR BIENES Y DERECHOS DE TITULARIDAD MUNICIPAL dokumentuan, 6. Cubiertas puntuan estalkiko materiale bezala jasotzen da: "teja cerámica sobre doble rastrel", Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Etxebizitza Tasatuentzat.

Gauzak horrela, behean izenpetzen duen teknikariaren ustez, A-59 UGARTONDO eremuak estetika bateratua izan dezan, gomendagarria litzateke eraikuntza guztiek estalkirako materiale bera erabiltzea. Baita, altxaerei eta eraikinen konposizio orokorrari dagokionean ere, auzune osoa modu bateratua kontsideratzea eta lantzea gomendagarria litzateke, horretarako Exekuzio Proiektuan azterketa bateratua aurkeztuz. Edonola, Udalaren esku uzten da erabakia.

- **EUSKO JAURLARITZAREN BAIMENA/LUR KUTSATUAK:** Eraikuntza obrak egin ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren 2016ko azaroaren 2ko ebazpenaren 2. puntuaren arabera ezinbestekoa da erakunde beraren indusketa baimena; 2018ko uztailaren 27ko ebazpen bidez eman zena. Ezinbestean bete beharko dira bertako zehaztapenak.
 - **HONDAKINEN GELA:** Ingurumen teknikariaren txostenera bideratzen da
 - **EKT-BETETZEA ETA GAINONTZEKO ARAUDI APLIKAGARRIA:** Orohar aplikagarriak direnak bete beharko dira.
 - **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA:** Orain artean eraisketa baimenik eskatu ez bada ere, ohartarazten da, aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 14.500e €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (17.400€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
 - **ZERBITZUETAKO TXOSTENA:** Zerbitzuetako txostenean eskatutakoak bete beharko dira.
 - **APARKALEKUEN JARDUERA BAIMENA:** Sotoetako aparkaleku erabilerari dagokionean, dagokion jardura baimena/aurretiazko komunikazioa izapidetu beharko da ezinbestean, erabileran jartzeko.
-
- 2019ko ekainaren 14an interesatuak Oinarrizko Proiektu aldatua aurkeztu du.
 - 2019ko uztailaren 16an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Espediente erlazionatuak: (ikus espedientea).

HZ.13/2018-0359: A-59 UGARTONDO EREMUAN G PARTZELAN 33 ETXEBIZITZA ERAIKITZEAREN INGURUKO GALDERA:

2018ko urtarrilaren 5eko udal arkitektoaren txostenean honako baldintzak finkatzen ziren:

- **HIRIGINTZA PARAMETROAK:** Indarrean diren aipatutako planemendu tresnekin alderatuta honakoa ikusi da:

	PLAN BEREZIA/ PB ALDAKETA/ XEHEITASUN AZTERLANA	AURKEZTU DEN AURREPROIEKTUA	
Etxebizitza kop.	33 unitate	33 unitate	BETETZEN DU
Eraikigarritasuna sestra gainean	3.555 m2	- Behe solairuan "cenadores" delakoak jarriko diren ez dago argi. Ez dira eraikigarritasun neurteta tabla honetan sartu. - Estalki beheko neurteta ziurtatzeko ebakidura beharko litzateke.	Badirudi betetzen duela, baina aipatu arrazoiengatik ezin da ziurtatu.
altuerak	guztizkoa behe solairutik gailurrera: 15.5	Altxaera planuetan zehaztutakoak	BETETZEN DU
sestrak	Behe solairuek: +39,6 +39,9 +40,2	Altxaera planuetan zehaztutakoak	BETETZEN DU
lerrokadurak	Derrigorrezkoak eta gehienekoak	Ikus planoak	BETETZEN DU (estalki beheak ezik)
Profila	SIII+IV+BC Estalki beheko zehaztapenekin	SII+IV+BC	BETETZEN DU
erabilerak	Sestra g. ---> etxebizitzak Sestra a. ---> garaje eta trastelekuak	Sestra g. ---> etxebizitzak Sestra a. ---> garaje eta trastelekuak	BETETZEN DU

Oharrak:

- 3.555 m2-ko sestra gaineko eraikigarritasun gehienekoa betetzen dela ziurtatzeko eraikinaren ebakidurak



Usurbilgo Udala

aurkeztu beharko lirateke eta behe solairuan "cenadores" delakoak jarriko diren argitu beharko litzateke baita ere. Edonola, **Eraikigarritasun konputoa GAO-n 2014ko urriaren 13an argitaratutako irizpideen arabera eginda, Oinarrizko/Exekuzio Proiektuan ere ezinbestean bete beharko da indarrean den planeamenduak eraikin honetarako ezartzen duen gehieneko eraikigarritasuna:** sestra gainean (3.555 m2(t)) eta guztizko eraikigarritasuna sestra azpian (12.800 m2(t)).

- eraikuntzaren kanpo sestrekin bat etorri beharko dute Urbanizazio proiektuan onartutakoekin.
- **ESTALKI BEHEKO TXAPITULA/KASETOIAK (buhardas):** Xehetasun Azterlanaren 2.2. artikuluan honakoa esaten da:

"2. Se autoriza la implantación de buhardas o casetones, así como de terrazas, que respondan a los criterios reflejados en los planos antes mencionados. Esta solución será puntual, coincidente con la ubicación de puertas-ventanas en bajocubierta, a razón de una salida por espacio/habitación de vivienda, siendo la terraza pertinente de la misma anchura que el hueco. En el resto del perímetro el falcón de cubierta será continuo hasta el alero de un metro respecto a alineación de fachada de plantas tipo, sin terraza. El emplazamiento de buhardas será determinado en los correspondientes proyectos edificatorios."

Aurkeztu den aurreproiektuan **terrazek ate-leihoen zabalera baino handiagoa dute. Ez da onargarria.**

- **HONDAKINEN GELA:** Ingurumen teknikariaren txostenera bideratzen da.
- **ESTALKIAREN AKABERA MATERIALA ETA BESTE:** Behean izenpetzen duen teknikariaren ustez, **A-59 UGARTONDO** eremuan Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Etxebizitza Tasatuen estalkiak zeramika teilarekin egin beharko direnez, gainontzeko etxebizitza eraikinen estalkiak ere hala egitea gomendagarria litzateke, eremuaren estetika bateratzearen eta baita Kalezar inguruko egungo eraikuntzekin integratu dadin. Berdin, altxaerei eta eraikinen konposizio orokorrari dagokionean ere, auzune osoa modu bateratuan kontsideratzea eta lantzea gomendagarria litzateke, horretarako Oinarrizko/Exekuzio Proiektuan azterketa bateratua aurkeztuz. Edonola, Udalaren esku uzten da erabakia.
- **ARAUDI APLIKAGARRIAK ETA BESTE:** Edonola, eraikuntza proiektuak indarrean den araudia bete beharko du; hala nola, etxebizitzaren barne diseinu eta azaleretarako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Diseinurako araudia, EKT, RITE, Tentsio Baxuko Erregelamendua, ...e.a.
- **APARKALEKUEN JARDUERA BAIMENA:** Sotoetako aparkaleku erabilerari dagokionean, dagokion jarduera baimena/aurretiazko komunikazioa izapidetu beharko da ezinbestean, erabileran jartzeko.

Oharra: A-59 UGARTONDO Barne Erreformatarako Plan Bereziaren Aldaketa izapidetu da (b.b.o. 2016 12 20).

2. TXOSTENA:

Aurrekarietan azaldu bezala, **CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.A.** enpresaren izenean **A-59 UGARTONDO** eremuan **G partzelan 31 etxebizitza libre egikaritzeko Oinarrizko Proiektu aldatua** aurkeztu du.

Aurkeztu dokumentazioa da; eskaera orria eta Oinarrizko Proiektu aldatua teknikari gaituak (arkitektoak) izenpetua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsi gabe. Oinarrizko Proiektuak barneratzen ditu; memoria (hirigintza baldintzen betetzea, EKT-ren justifikazioa eta irisgarritasuna), aurrekontua eta planuak. **Oinarrizko Proiektuaren PEM-A 3.135.976,0EURO-koa da.**

Orain aurkeztu den proiektua aurrez Udalak eskatutako baldintzekin alderatuta, honakoa esan daiteke:

- **HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:**

	AASSTB/PB/PBaldaketa/X.A.	Oinarrizko Proiektu aldatua	
sestrak	Beha solairuan: +39,6 +39,9 eta +40,2	Beha solairuan: (ikus 14,15 eta 16 planoak)	BETETZEN DU



Usurbilgo Udala

		+39,6 +39,9 eta +40,2	
--	--	-----------------------	--

Edonola, Exekuzio Proiektuak indarrean den planeamenduak finkatutako eraikigarritasuna, lerrokadurak, altuerak, sestrak eta bolumena bete beharko ditu.

- **SESTRA AZPIKO ERAIKUNTZA** : Altxaera planoak zuzendu dira, baina **lorategiko lurrek aireztapen leihoen behe sestraraino iritsi beharko dute.**
- **ETXEBIZITZEN AZALERA ERABILGARRI GUTXIENEKOA**:Aurreko proiektuarekiko aldaketa barneratu da, 3. portaleko behe solairuko logela bakarreko etxebizitzakorain 21,42 m2 erabilgarriko EJS (Egongela-Jangela-Sukaldea) eta guztizko 48.67 m2 erabilgarri ditu eraikin barnean, kanpo terrazak 28.87 m2 izanik. Horren inguruan honakoa:
 - x indarrean diren AASS-en 37. artikuluan finkatzen denaren kalterik gabe, aintzat hartu behar da, alde batetik, etxebizitzak guztira barne eta kanpo (terraza) azalera kontsideratuz 77,57 m2 erabilgarri dituela denetara eta bestetik, Udalak jada aurrekari bat baduela non 60 m2 erabilgarri baino gutxiagoko etxebizitza bat baimendu zuen.
 - x Edonola, Exekuzio proiektuak bizigarritasun baldintzen inguruko justifikazioa jaso beharko du.
- **ESEKILEKUA: Bete da.**
- **ERAIKUNTZA MATERIALAK**: Aurreko txostenean esandakoa berresten da. Udalaren erabakiaren baitan onartuko dira materialeak Exekuzio Proiektuan.
- **BESTEAK**: Gainontzeko puntuetan aurreko txostenetan esandakoak berresten dira.

3. ONDORIOAK:

Ondorioz, aurkeztu A-59 UGARTONDO EREMUAN G PARTZELAN 31 ETXEBIZITZA LIBRE ETA GARAJEEN OINARRIZKO PROIEKTU ALDATUA-ri ALDEKO txostena ematen zaio, txosten honetan (eta aurrekoetan) ezarritako baldintzekin, laburbilduz:

- Eraikigarritasun konputoa GAO-n 2014ko urriaren 13an argitaratutako irizpideen arabera eginez, Exekuzio Proiektuan ere ezinbestean bete beharko da indarrean den planeamenduak eraikin honetarako ezartzen duen gehieneko eraikigarritasuna.
- Altxaeretan, lorategiko lurrek sestra azpiko aireztapen leihoen behe kotaraino heldu beharko dute, eraikuntzaren inpaktua gutxitzeko.



Usurbilgo Udala

- 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (17.400€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- Exekuzio Proiektuak indarrean den planeamenduak finkatutako altuerak, sestrak eta bolumena bete beharko ditu. Baita ere, eraikuntzaren kanpo sestrekin bat etorri beharko dute Urbanizazio proiektuan onartutakoekin.
- Estalkiaren akabera materialari dagokionean, Udalaren esku uzten da erabakia.
- Exekuzio Proiektuan sestra azpiko eraikuntzaren planu osoak eta akotatuak aurkeztu beharko dira eta etxebizitza libreei dagokion azalera espreski zehaztu horietan, dagokion baimena horretara egokitu dadin.
- Sotoko aparkalekuari dagokionean, Oinarrizko Proiektuak zati bat barneratzen badu ere, sotoen guztizko azalerak 10.000 m2 gainditzen duenez, sektORIZAZIOARI (eta orohar, suteen aurkako babesari) dagozkion neurrien aurreikuspena aurkeztu beharko da Exekuzio Proiektuarekin batean. Aparkalekuek zatikako suteen aurkako babesari bete beharko dute soto guztia eraiki gabe dagoen artean eta bere osotasunean, guztia eraikitzen denean.
- Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da.
- Exekuzio Proiektuan aztertutako dira zehatzago EKT, RITE eta gainontzeko araudi teknikoaren betekizunak.
- Sotoetako aparkaleku jarduerari dagokionean berau ezartzeko dagokion jarduera baimena/aurretiazko komunikazioa izapidetu beharko da ezinbestean.
- Guzti hau, beste udal teknikariek beren txostenetan egindako eskakizunen kalterik gabe.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2019ko uztailaren 18an
UDAL ARKITEKTOA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO
BURUA
Izta.: Ekhiñe Eiguren Azkune



Usurbilgo Udala

Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, udal aparejadoreak, M^a Sol Fuciños Adan andereak, 2019ko maiatzaren 27an txosten hau eman zuen:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

ESKAERA: 31 etxebizitza eta garajeak eraikitzeko proiektuko Udal zerbitzuei dagozkien lotuneen txostena

ESKATZAILEA: Hirigintza saila

SUSTATZAILEA: Construcciones Sukia Eraikuntzak, S.A.

KOKAPENA: A-59 (Ugartondo)

ESP. ZENB: HZ 04/2019-0136

TXOSTENA

Construcciones Sukia Eraikuntzak, S.A. -ek sustatzen duen "A-59 Ugartondo eremuan 31 etxebizitza eta garageen" oinarrizko proiektuko, Udal zerbitzuetako sareen lotuneei buruzko txostena eskatzen du Hirigintza sailak.

Aurkeztutako proiektuko ez dira agertzen sare orokorretako lotunak.

- **Ur zikinak:** Eraikuntzako ur zikinak urbanizazioko sarearekin non lotuko diren kokapen planoak.
- **Euri urak:** Eraikuntzako euri urak urbanizazioko sarearekin non lotuko diren kokapen planoak.
- **Ur edangarriaren hornikuntza:** Ur edangarria nondik hornituko den adierazten duen kokapen planoak.

Ur kontagailuak non jarriko diren ez da adierazten aurkeztutako dokumentazioan.

Obra eraikitzen hasi baino lehen aurkeztuko den exekuzio proiektuak hurrengoak jasoko ditu eta Udal zerbitzu teknikoek oniritzia jaso beharko dute:

1. *Eraikuntzako ur zikinak urbanizazioko sarearekin non lotuko diren kokapen planoak aurkeztuko da.*
2. *Eraikuntzako euri urak urbanizazioko sarearekin non lotuko diren kokapen planoak aurkeztuko da.*
3. *Ur edangarria nondik hornituko den adierazten duen kokapen planoak aurkeztuko da.*
4. *Ur edangarrien kontagailuen kokapena adierazten duen banaketa planoak.*



Usurbilgo Udala

2019ko maiatzaren 27an
Zerbitzu eta Mantenua saileko burua
M^a Sol Fuciños Adan

Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, Ingurumen Teknikariak, Maite García Azurmendi jaunak, 2018ko azaroaren 16an honako txostena eman du:

UA2018_HZ04_01

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA NAGUSIAK

A-56 UDARTONDO EREMUAN F PARTZELAN 28 ETXEBIZITZA LIBREEN
OINARRIZKO PROIEKTUARI TXOSTENA. HONDAKIN GELA

KOKAPENA: A-59 Ugartondo. Usurbil.
ESKAERA DATA: 2018ko urtarrilaren 23a.
ESKATZAILEA: Enrique Abad, JAUREGIZAR S.L.-ren izenean
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2018-0036

1-AURREKARIAK

- 2018ko urtarrilaren 23an Oinarrizko Proiektua aurkeztu da.
- 2018ko azaroaren 14an udal arkitektoak txostena idatzi du, besteak beste, hondakin gelari buruzko txostena eskatuz.

2-ARAUDIA

Usurbildo udalerriko hiri hondakinen bilketari dagokionez, hurrengoa hartu behar da kontuan:

- 2014ko abuztuaren 12an argitaratutako Usurbilgo udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza. 20. Artikulua. Hondakin gela etxebizitza eraikinetan.
- EKT eta HS2 atala. Hondakinen bilketa eta ebakuazioa.
 - 2.1 Edukiontzien biltegia eta erreserba espazioa.

3-AZTERKETA eta PROPOSAMENA

Aurkezturiko informazioaren arabera, esan daiteke, Udal ordenantza betetzen duela hondakin gelak, kanpotik sarbide zuzena duelako eta azalera egokia. Ondorioz, ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut.

Edozien kasutan, aipatu informazio gehigarrian ez dira kode teknikoak eskatzen dituen ezaugarriak zehazten (ulertzen da ezaugarri horiek beste planoetan adierazi beharko lirakeela) eta, ohartarazten da, edozein kasutan, kode teknikoak eskatzen dituen ezaugarriak izan beharko dituela (ur



Usurbilgo Udala

hartunea, estolda, aireztapena, estaldurak etab...).

Usurbilen, 2018ko azaroaren 16an.

Udal ingurumen teknikaria Izta.: Maite Garcia Azurmendi

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak gehiengoz (aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta eta Jose Mari Iribar; abstentzioa: Beñat Larrañaga) honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko G partzelan 31 etxebizitza, garaje eta trasteleku eraikitzeke udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Ansola Bastida Arkitektoak S.L.P. taldeko Fernando Ansola Aizpitarte eta Jon Bastida Etxeberria arkitektoek 2019ko ekainean idatzitako Oinarrizko Proiektu aldatuari eta aurkeztutako dokumentazio gehigarriari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Eraikigarritasun konputoa GAO-n 2014ko urriaren 13an argitaratutako irizpideen arabera eginez, Exekuzio Proiektuan ere ezinbestean bete beharko da indarrean den planeamenduak eraikin honetarako ezartzen duen gehieneko eraikigarritasuna.
- Elkargo ofizialak ikus onetsitako **Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da, baimendutako Oinarrizko Proiektuari eta hari ezarritako baldintzei egokitzuz, udalaren oniritzia jaso dezan. Besteak beste, honakoak barneratuko beharko ditu proiektu honek:
 - Exekuzio Proiektuak indarrean den planeamenduak finkatutako altuerak, sestrek eta bolumena bete beharko ditu. Baita ere, eraikuntzaren kanpo sestrek bat etorri beharko dute Urbanizazio proiektuan onartutakoekin.
 - Altxaeretan, lorategiko lurrek sestra azpiko aireztapen leihoen behe kotaraino heldu beharko dute, eraikuntzaren inpaktua gutxitzeko.
 - Estalkiaren akabera materialari dagokionean, Udalaren esku uzten da erabakia. Hau da, Ugartondo eremu osoak tratamendu bateratua izate aldera Udalak BOE eta tasatuetarako hartutako erabakiak baldintzatuko du.
 - Sestra azpiko eraikuntzaren planu osoak eta akotatuak aurkeztu beharko dira eta etxebizitza libreei dagokion azalera espreski zehaztu horietan, dagokion baimena horretara egokitu dadin.
 - Sotoko aparkalekuari dagokionean, Oinarrizko Proiektuak zati bat barneratzen



Usurbilgo Udala

badu ere, sotoen guztizko azalerak 10.000 m2 gainditzen duenez, sektorizazioari (eta orohar, suteen aurkako babesari) dagozkion neurrien aurreikuspena aurkeztu beharko da Exekuzio Proiektuarekin batean. Aparkalekuek zatikako suteen aurkako babesari bete beharko dute soto guztia eraiki gabe dagoen artean eta bere osotasunean, guztia eraikitzen denean.


- Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da.
- Exekuzio Proiektuan aztertutako dira zehatzago EKT, RITE eta gainontzeko araudi teknikoaren betekizunak.
- Sotoetako aparkaleku jarduerari dagokionean berau ezartzeko dagokion jarduera baimena/aurretzako komunikazioa izapidetu beharko da ezinbestean.
- Eraikuntzako ur zikinak urbanizazioko sarearekin non lotuko diren kokapen planoak aurkeztu da.
- Eraikuntzako euri urak urbanizazioko sarearekin non lotuko diren kokapen planoak aurkeztu da.
- Ur edangarria nondik hornituko den adierazten duen kokapen planoak aurkeztu da.
- Ur edangarrien kontagailuen kokapena adierazten duen banaketa planoak.
- Hondakin gelari dagokionez, kode teknikoak zehazten dituen ezaugarriak betetzea ziurtatuko da.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 14.500 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (17.400 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

17,400 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2019-0136*” jarriaz kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik**, obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da udal aparejadorearekin. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- Telekomunikazio Azpiegituren proiektua aurkeztuko da.



Usurbilgo Udala

- Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da. Exekuzio Proiektuan aztertutako dira zehatzago EKT, RITE eta gainontzeko araudi teknikoaren betekizunak.

- 68/2000 Sar-irten erraztasunari buruzko Dekretuak ezarritakoak bete beharko dira.

- Urriaren 21eko 250/2003 Dekretuaren arabera, Eraikinaren Liburua osatu beharko da, berau jasotzeko dagokion armairua prestatuz. Armairuaren gutxieneko neurriak honako hauek izango dira: 0,50m²ko planta-azalera, eta metro bateko altuera. Suaren eta hezetasanaren aurkako materialez egina beharko da, sarrailadun ate eta guzti. Eramateko modukoa bada, eraikineko elementu finkoei behar bezala lotuta egon beharko du, mugitu ez dadin. Armairu edo gune hori eraikinaren alde edo toki komunean jarriko da, erraz eskuratzeko moduan, baina ez da gela hezeetan edo instalazioetarako baino ez direnetan ipini beharko da.

- AASS-etako Egoitzazko Eraikuntzen Ordenantzak bete beharko dira.

- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.

- Obra baimenaren epeak:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.

- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.



Usurbilgo Udala

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm.ekoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Obralari Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lurralde kontribuzioaren alta.
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrairaduraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diotenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.


BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- HORTICULTURA AGRILAN S.L. RI ZUBIETAKO 9. POLIGONOKO 148 PARTZELAN NEKAZAL BILTEGIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0096

HORTICULTURA AGRILAN S.L. (IFK: B75153684) enpresaren ordezkariaren diharduen JESUS URROZ UGALDEA jaunak, Zubietako 9. poligonoko 148 partzelan nekazal biltegia eraikitzeke Oinarrizko Proiektua aurkeztearekin batera, obretarako udal baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA



Usurbilgo Udala

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, aurkeztutako eskaera aztertu ostean, honako txostena eman du:

Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK

Zubietako 9. poligonok 148 partzelan nekazal biltegia eraikitzeke udal baimena

ESKATZAILEA: Nekazal biltegia eraikitzeke udal baimena.
KOKAPENA: Zubietako 9. poligonoko 148 partzela
ESKAERA DATA: 2019ko otsailak 7a.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2019-0096
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 116250,00 €
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: Ez da aurkeztzen.

1. AURREKARIAK

- **HZ.04 2017-68** Zubietako 9. poligonoko 148 partzelan nekazal biltegia eraikitzeke baimena.
 - Baimen eskaera egin eta ukatu egin zitzaion. Errekurtsua aurkeztu eta baztertu egin zen baita ere.
 - 2018ko ekainak 6an. Dokumentazio osagarria aurkeztu eta berriz baimena eskatzen da.
 - Mail bidez, 2019ko urtarrilak 22an udal teknikariak jakinarazten du.
 - x Gehienezko altuera librea 3,5 m-takoa izan behar duela.
 - x 2018ko ekainak 6an aurkezturikoa informazioa ez zen egoki aurkeztu, baimendutakoa eta obra amaierako dokumentazio osatua ez dago.

- **HZ.13 2019-0066.** 2019/01/25ean Nekazal biltegia eraikitzeke aukeraz galdera urbanistikoa aurkeztzen du.
 - Galdera urbanistikoa 2019/02/06an Aldundira igortzen da, lehendik udal teknikariak egindako txostenekin batera. Bestek beste, hurrengo irizpideak aipatuz:
 - x Eraikinaren beharrak arrazoitzeko, eskatzailea **486/1997 Errege Dekretuan** oinarritzen da. Kontutan hartuta, eraikin hau ez dela lehendik dagoen ustiattegiko eraikin bat, baizik eta nekazal produktora bideratuta dagoen sail bat, araudi hau **ez litzateke aplikagarria**.
 - x Biltegiaren jarduera piperretara bideratuta dago, eta bertan aritzen diren **beharginak aldi baterako langileak izan ohi dira** (3 hilabeterako normalean). Eraikinaren premiak



Usurbilgo Udala

- baloratzeko orduan, aurreikusten diren atsedenleku eta **azpiegituren proportzionaltasuna egokia den baloratu beharko litzateke**, eraikin iraunkor bat egin nahi da aldi baterako langileentzat.
- x **Jarduerak badauka Donostiako lurretan beste eraikin bat. 500 m baino hurbilago eta 7 min-ko oinezko bidearekin, balio estrategiko altuko lurretatik kanpo.** Donostiako Udalak eraikin horretan emandako baimen mota ez du Usurbilgo Udalak ezagutzen, eta langileen lan baldintzak betetzeko aukera legoke.
 - x Kokapen berdinean, berriki, **Usurbilgo Udalak negutegiaren berritzea eta zabalkundea baimendu du. Langileen lan baldintzak hobetu daitezkeela ikusten da, egokitzapen txiki batekin.**
 - x Biltegia, balio estrategiko altuko lurretan kokatzen da, eta **lur mota horien lehentasuna nekazaritzara bideratzea litzateke eta ez nekazal jarduerarako azpiegitura lagungarrientzat.**
- 2019/02/07an Aldundiko erantzuna jasotzen da, besteak beste, hurrengoa aipatuz.
 - x **82/1998 foru dekretuaren ondorioetarako, landare alor honen aldetik ez dago eragozpenik Agrilan ustiategiaren aurreikusitako sailean proposatu duten biltegia eraikitzeko.**
 - x *Dena dela, Usurbilgo Udalarari jakinarazi nahi diogu txosten honetan ez ditugula baloratzen eraikin berri horren hirigintzaren alderdiak edo bestelakoak, horien artean proiektu arkitektonikoa, **eraikina proiektatu duten kokalekuaren lursail hartzailea gutxienez Ha batekoa izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean I. Eranskineko 11.3 artikulua xedatzen duenaren arabera etab...***
 - x *Halaber, adierazi behar da ez **Landa Garapeneko eta Nekazaritza Egituretako Zerbitzuak ezta Landare alorreko sekzioak ere ez dutela ezarrita inongo irizpiderik proiektatutako eraikinaren beharrari eta aurreikusita dagoen jarduerarekiko proportzionaltasunari buruz, ez eta eraikin berriaren justifikazioari buruzkorik ere egungo ustiapenaren tamaina kontuan izanda. Alderdi horiek nekazaritza ustiategiaren antolakunde ekonomikoari dagozkio, eta haren titularraren ardura dira.***

- **HZ.04 2019-0096** 2019ko otsailak 7an interesatuak nekazal biltegiaren oinarrizko proiektua aurkeztu du.

2. TXOSTENA eta ONDORIOAK

Aurrekari kontutan hartuta, aurkezturiko oinarrizko proiektua aztertuta eta Aldundiko txostena ren arabera hurrengoa ondorioztatzen da.



Usurbilgo Udala

Lehendik ere aipatu eta eskatu den informazioa ez dela aurkeztu oinarritzko proiektuan:

- **Gehienezko alturera libre 3,5 m-takoa** da eta ez aleroan.
- Nekazal ustiategiak lehendik baimenduta dituen eraikinen erabilpena baimena ezezaguna da. (2018ko ekainaka 6an aurkeztu zen dokumentua ez dago osatua eta email bidez jakinarazi zen)

Aldundiko txostenaren baitan, eraikinaren lursail hartzailea gutxienez 1 Hakoia izan behar duela eta aurkezturiko dokumentazioaren baitan ez duela azalera hori jabetzan. (**Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. I eranskina. 11.3 Art.**)

Eraikina dimentsionatu eta erabilera zehazteko orduan, **486/1997 errege dekretua** lan lekuetako gutxieneko segurtasun eta osasun araudia zehazten duen aipatzen dela, eta araudi hori ez duela zertan aplikagarria izan behar kasu honetan.

Aldundiak ez duela eraikinaren behar eta proportzionaltasunari buruzko irizpiderik ezartzen, nahiz eta **82/1998 Foru Dekretua**, lurzoru hiritarezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituenak 1 artikuluan hurrengo adierazi:

1.Udalek, lurzoru hiritarezinean etxebizitza eta eraikuntzak egiteko baimena eman aurretik, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuari txostena eskatu beharko diote, honek proposatzen den etxebizitza edo eraikuntza hori nekazaritza ustiapen bati lotuta dagoen eta, zehazki finkaren izaera, eta erabilerarekin eta Nekazaritza Administrazioaren plan edo arauekin bat datorren eta egokia den balora dezan. (gazteleraz finkaren hedadurarekin ere bat datorren aztertuko dela aipatzen da).

Ikusirik, txosten honetan izaera ezberdineko hainbat araudi kontutan hartu behar direla, Usurbilgo Udaleko aholkularitza juridikoaren txostena eskatzea proposatzen dut, txosten tekniko hobeto oinarritu dadin.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2019ko ekainaren 21ean.
UDAL INGURUMEN TEKNIKARIA
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi.

TXOSTEN JURIDIKOA

Gaia aztertu ostean, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, udal aholkularia juridikoak, honako txostena eman du:



Usurbilgo Udala

**148. PARTZELAKO 9. POLIGONOAN NEKAZARITZA BILTEGI BAT
ERAIKITZEKO AGRILAN SC-AK EGINDAKO ESKAERARI BURUZKO
TXOSTEN JURIDIKOA**

I.- AURREKARIAK

- 1.- 2017ko otsailaren 10ean, Horticultura Agrilan SLak Usurbilgo 148. partzelako 9. poligonoan nekazaritza-biltegi bat eraikitzeke lizentzia eskatu zuen.
- 2.- Usurbilgo Arau Subsidiarioen 52. eta 67. artikulua aplikatuz, udal teknikaria, 2017ko otsailaren 23ko data zeraman txostenaren bidez, egin zen eskaeraren aurka agertu zen. 2017ko otsailaren 14ko data duen Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiz, eskaera atzera bota zen.
- 3.- 2017ko apirilaren 12an Horticultura Agrilan SLak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen. Bertan, aurreproiektu bat aurkezten zuen, eta ondorengo baldintzetan esku hartzea justifikatzen zuen:
 - a.- Produkzioa hilabete jakin batzuetara mugatuta badago ere, 2016. urtean 12 lagun inguru kontratatatu zituzten eta 2017an langile gehiago kontratatzea aurreikusten da.

Langileen eta kotizazio-egunen datuak aurkeztu ditu; gehienez 70 egun kotizatu dira.
 - b.- Lantokiei buruzko araudia betetzeko beharra.
 - c.- Produktu fitosanitarioen biltegitratzeari dagokionez, araudia betetzea.
 - d.- Biltegia 148. partzelako 9. poligonoan egongo da, eta 5.361 m²-ko azalera izango du.
 - e.- Eraikuntzaren altuera eta Arau Subsidiarioen 7., 52. eta 67. artikulua betetzen direla justifikatzen du, *“badagoen nekazaritza-ustiapeneko erabilerei lotutako eraikuntza isolatu bat”* dela adieraziz.
- 4.- 2018ko otsailaren 12an, aurkeztutako berraztertze-errekurtsoaren aurkako txostena egin zen, honako datu hauetan oinarrituz: energia-balio handiko lurzoruak nekazaritzarako erabili behar dira; eta emandako datuekin ezin da baloratu jarduerak aurretik azpiegiturarik ba ote zuen, eta ustiapenak —zerbitzuko azpiegiturak kokatzeko— balio agrogikiko handia EZ duten lurzoruak ba ote dituen.

2017ko martxoaren 14ko Tokiko Gobernu Batzordeak erabakita, ezarritako errekurtsoa ezetsi egin zen.
- 5.- 2018ko ekainean, Usurbilgo Udalean aurkeztu zen inguruko partzela batean —Donostiako udalerrian— kokatutako biltegi baten dokumentazioa. Biltegiak dutxa eta aldagela ditu. Nekazaritza eta Basozaintzako Plan Sektorialaren arabera, partzela hori Nekazaritza eta



Usurbilgo Udala

Abeltzaintza eta Landazabala kategorian sartuta dago, trantsizioko landa-paisaia kategorian.

- 6.- Espedientean 2018ko azaroaren 6ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren txosten bat jasota dago. Bertan honako hau adierazten da:

“Langileek ez daukate lantegiaren inguruan eskuak garbitzeko iturririk ez eta komun garbirik: lantegiaren inguruan esan nahi du 500 m edo 7 minutu oinez”

- 7.- 2019ko urtarrilean, langileentzako aldagela eta atsedengunea dituen nekazaritzako eta abeltzaintzako biltegiari buruzko hirigintza-kontsulta berri bat egin zuen. Eraikitzeko justifikazioa bera zen, eta langileen zerrenda eta 2018ko kotizazio-denbora erantsi zituen. Bertan egiazta daiteke kotizazioko gehieneko epea hiru hilabetekoa dela.
- 8.- 2019ko urtarrilaren 31n, udaleko teknikariak eskaeraren berri eman zuen, honako alderdi hauek azpimarratuz:
- a.- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 486/1997 Errege Dekretua ezin da kasu honetan aplikatu.
 - b.- instalazio iraunkorren beharra justifikatu behar da, jarduera aldi baterako denean eta langileek aldi baterako kontratua dutenean (*normalean 3 hilabete*).
 - c.- Jarduerak Donostian beste eraikin bat dauka, balio estrategikoko nekazaritza-lurzorutik kanpo eta 500 m baino gutxiagoko distantziara eta oinez 7 minutura.
 - d.- Langileen baldintzak hobetu daitezke orain dagoenean egokitzapen txiki bat eginez.
 - e.- Biltegia balio estrategiko handiko lurzoruan kokatua dago eta lurzoru hori nekazaritza-jarduerarako erabili behar da.
- 9.- 2019ko otsailaren 7an Foru Aldundiak Udalak egindako txosten-eskaerari erantzun zion, honako hau adieraziz:
- a.- Baratzte-ustiapenarekin lotutako eraikuntzak egitearekin loturik dagoenez, erabilera onar daiteke *“Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala – Balio estrategiko handia”* antolamendu-kategoriaren barruan.
 - b.- Adierazi du txostenak ez dituela baloratzen eraikuntza berriaren hirigintzako alderdiak ezta beste mota bateko alderdiak —adibidez, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialeko 11.3. artikulua— ere.
 - c.- Landa-garapeneko zerbitzuak eta Nekazaritza-egituren zerbitzuak ez dituztela finkatuta proiektatutako eraikuntzaren beharrari eta aurreikusitako jarduerarekiko bere proportzionaltasunari buruzko



Usurbilgo Udala

irizpideak, ezta eraikuntza berria ustiapenaren gaur egungo tamainarekin justifikatua ote dagoen ere.

10.- 2019ko otsailean, AGRILAN SCak oinarritzko proiektua aurkeztu zuen.

11.- 2019ko ekainaren 21ean, Ingurumen teknikariak txosten juridikoa eskatu zuen.

Eskatutakoa betetzeko, txosten juridiko hau idatzi da.

II.- ANALISI JURIDIKOA

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretu bidez, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala (198. EHAA, 2014ko urriaren 17koa) behin batiko onartu zen. Bertako xedapen gehigarrian honako hau finkatu zen:

*“LPS honek, Lurraldea Antolatzeko Legean xedatutakoaren arabera hierarkia handiagoko bitartekoa denez, **bere gisa lotetsiko ditu** hirigintza-legeria aplikagarriak xedatutako **hirigintza-planeamenduko bitartekoak**.*

*Horrenbestez, **udal-planeamendua lotetsita dago plan honen ondorioz**, eta haren edukira egokitu beharko du; gainera, erreferentzia izango du zehazten dituenak interpretatu eta aplikatzean.*

Lurzoru urbanizaezinean erabilera eta/edo jarduera bat baimentzeko, eraginpeko lurzoru-kategoria, jarduera-mota eta erabilera bere baldintzekin erregulatzea analizatu behar da —LPS aplikatuz—.

Eraginpeko lurzoruaren kategoriari dagokionez, LPSaren 46. artikuluan antolamenduko kategorien sistematizazio orokorra finkatzen da. Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabaleko kategoriaren barruan, Balio Estrategiko Handiko eta Trantsizioko Landa Paisaiako azpikategoriak bereizten dira.

48.2 artikuluan **Balio Estrategiko Handiko** nekazaritza- eta abeltzaintza-azpikategoria nekazaritza-sektorerako lurzoru estrategiko gisa definitzen da. Beraz, hura mantentzea eta gordetzea lehentasuna da, bestelako erabileren aurretik. Berariaz hauxe adierazten da:

*“Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearen 16.1 artikuluzatiaren arabera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala kategoriako **Balio Estrategiko Handia azpikategoriako** eremuak **estrategikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoarentzat, gizarte-intereseko ondasuntzat hartzen dira, eta udalek babestutako lurrak izango dira**”.*

Beraz, lurzoru-kategoriari dagokionez, gizarte-intereseko lurzoru baten aurrean gaude eta Udalak babestu beharko du.

Ezarri nahi den jarduketarekin loturik, eskaerak “nekazaritza-biltegi” deitzen du, eraikinaren zati handiena nekazaritza-ustiapenari lotuta EZ dauden erabileretarako ez izan arren.



Usurbilgo Udala

LPSaren 28.3 artikuluan nekazaritzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak definitzen dira. Bertan **EZ da hala definitzen** erabilera nagusia nekazaritza-ustiapenari lotuta EZ duen — adibidez, dutxak, bainugelak, aldagelak, jangela etab.— eraikin bat.

Azkenik, LPSaren erabileren matrizean, balio estrategiko handiko lurzoruan nekazaritza-ustiapenarekin lotutako eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak bakarrik onartuko dira, baldin eta nekazaritza eta basozaintzako jardueraren gainean sortutako eraginaren analisi bat egiten bada eta EIEPan jasotako baldintzetan neurri zuzentzaileak gehitzen badira.

Gainera, Foru Aldundiaren txostenean adierazten den bezala, Departamentu honek “nekazaritza-biltegi” bat balio agrologiko handiko lurzoru-kategorian onargarria den **bakarrik** baloratu du, hirigintzako alderdiak eta LPSaren 11.3. artikuluan eraikinentzako finkatutakoa baloratu gabe. Proiektatutako eraikuntza eta jarduerarekiko eraikinaren proportzionaltasuna ere ez ditu baloratu.

LPSaren 11. artikuluan “*Lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako eraikin berriak egiteko baldintzak*” arautzen dira. Bertako 3. atalean honako hau eskatzen da: “*partzela hartzailearen gutxieneko azalera Lurralde Historiko bakoitzerako erabakitako Laborantzako Gutxieneko Unitatea izango da*”; Gipuzkoaren kasuan, 1 Ha. Eraikuntza berria 148. partzelako 9. poligonoan egitea planteatu da. Partzelak **5.361 m²**-ko azalera du.

Usurbilgo Arau Subsidiarioak aplikatuz, lurzoru urbanizaezinearen araudia erregulatzen duen 52. artikuluan honako hau adierazten da:

“*Lurzoru urbanizaezinean industria-erabilera eta **landa-ingurunearen** paisaia-, ekologia- edo eta produkzio-alorretako ezaugarriak **eragin** edo endaka ditzakeen bestelako edozein erabilera **debekatuta dago**.”*

Azkenik, 1997ko apirilaren 14ko 486/1997 Legearen 2. artikuluan honako hau finkatzen da:

“2.- Errege Dekretu hori **ez** da aplikatuko:

e) **nekazaritzako edo basogintzako lantoki edo enpresa baten alor landuetan**, baldin eta bertako **gune eraikitik kanpo kokatuak badaude**”.

Foru Aldundiaren txostenean adierazten den moduan, Agrilan SC sozietateak jarduera honetara zuzendutako 3,01 HA ditu. Usurbilen kokatua dago berotegi batzuk eraiki zituzten **5.361 m²**-ko partzela bat. Hala ere, bertatik 500 m baino gutxiagora eta oinez 7 minututara, Donostiako lurretan, Agrilan SC sozietateak eraikin bat dauka dutxa eta komunarekin. Gainera, eraikina nekazaritza-lurzoruan kokatua dago, Iragateko Landa Paisaia azpikategorian, balio estrategiko handiko lurzorutik kanpo.

Adierazitako guztia kontuan hartuz, konklusio juridikoak honako hauek dira:

Lehena – Irailaren 16ko 177/2014 Dekretu bidez, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala onartu zenetik, plangintza-tresna hau



Usurbilgo Udala

loteslea da Usurbilgo Arau Subsidiarioentzat.

Bigarrena.- Balio Estrategiko Handi gisa katalogatutako lurzoruan eraikin bat egiteko eskatzen da lizentzia. Nekazaritza eta Elikadura Politikako 17/2008 Legearen 16.1 artikulua araberan, lurzoru hori estrategikoa da Euskal Autonomia Erkidegoarentzat; **gizarte-intereseko ondasun gisa sailkatzen da eta udalerriek babestu beharreko lurzorua da.**

Hirugarrena.- Altxatu nahi den eraikinari, eskaeran, “*nekazaritza-biltegi*” deitzen diote, eraikinaren zati handiena nekazaritza-ustiapenarekin lotuta EZ dauden erabileratara bideratuta dagoen arren.

Laugarrena.- Usurbilgo Arau Subsidiarioen 52. artikulua aplikatuz, lurzoru urbanizaezinean **debekatuta daude landa-ingurune**ko paisaia-, ekologia- edo produkzio-balioak narriatuko dituzten erabilerak.

Bosgarrena.- Usurbilgo Udala eskuduna da hirigintzako eta eraikinaren alderdiak baloratzeko eta LPSak gizarte-intereseko aitortutako lurzoruak babesteko irizpideak zehazteko.

Seigarrena.- Kasu honetan ezin da aplikatu 1997ko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua.

Zazpigarrena.- Usurbilgo Udalak eskuduntza dauka eraikin berriari lotutako azalerari dagokionez LPSaren 11.3. artikulua aplikatzeko eta eskatutakoari buruzko proportzionaltasun-irizpideak ezartzeko, kontuan hartuz, alde batetik, 500 m baino gutxiagora eta oinez 7 minututara beste eraikin bat dagoela eta, bestetik, eskatutakoaren tamainarekin eta iraunkortasunarekin bat ez datozen langileen behin-behinekotasuna.

Donostia, 2019ko uztailaren 3a
Nekane Azarola Martínez Itua. *Hirigintza Abokatua*
ARAUDI SLP


Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: HORTICULTURA AGRILAN S.L. (IFK: B75153684) enpresaren ordezkartzan diharduen JESUS URROZ UGALDEA jaunari, Zubietako 9. poligonoko 148 partzelan nekazal biltegia eraikitzeke udal baimena **UKATZEA** udal teknikariek beraien txostenetan emandako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

5.- 2019KO KULTURAKO HAINBAT DIRULAGUNTZEN KITAPENA.



Usurbilgo Udala

Espedienteak: Jexux Artze Kultur Elkarte (KE.01/2019-0044)
Alex Tello (KE.01/2019-0047)

IKUSIRIK

2019ko otsailaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko apirilaren 11ean egindako bilkuran, 2019eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, elkarte honek hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu du:

Jexux Artze Kultur Elkarte

Ekintzak	Onartutako gastua	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
1. "Lau Sasuak" kontzetua.	3.500,00 €	2.840,00 €	2.130,00 €	Gastua: 3.500,00€ Sarrerak: 672,00€ Guztira: 2.828,00€	710,00 €
2. "Soinujolearen semea" pelikula	790,00 €	390,00 €	292,50 €	Gastua: 774,56€ Sarrerak: 550,00€ Guztira gastua: 224,56€	97,50 €
3. "Zoaz pake santuan" antzezlan.	3.146,00 €	2.326,00 €	1.744,50 €	Gastua: 3.834,49€ Sarrerak: 1.146,00€ Guztira gastua: 2.688,49€	581,50 €
4 "H-Artzetik, poesia musu zapien.	2.000,00 €	1.420,00 €	1.065,00 €	Gastua: 2.420,00€ Sarrerak: 390,00€ Guztira gastua: 2.030,00€	355,00 €
Guztira					1.744,00 €

Alex Tello

Ekintzak	Onartutako gastua	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
5. Jon Gurrutxaga eta Urbil Artola+ Iker Piris Trio. Afalosteko Blues kontzertua	2.056,00 €	1.736,00 €	1.302,00 €	Gastua: 1.613,00€ Sarrera: 123,00 € Guztira gastua: 1.490,00€	188,00 €
Guztira					188,00 €



Usurbilgo Udala

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2019kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2019/02/12).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (2017/07/18).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
Jexux Artze Kultur Elkartea	1,2,3,4	1.744,00 €
Alex Tello	5	188,00 €

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03 2019 (A 540)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 19:12etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.